

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

100. zenbakia

Data 2003-05-29

10199 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Udalerriko kanposantuaren zerbitzuak eskaintzeko ordenantza. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Lege Zerbitzua – Finantza Zuzendaritza

Iragarkia

2003ko maiatzaren 8an hartu zituen Donostiako Udalak Udalaren Hilerrietako Zerbitzuei buruzko Ordenantza Orokorra jendaurrera aterata izandako denboran egindako alegazioen gaineko erabakiak. Horrekin batera, ordenantzaren testua behin betiko onartzea ere erabaki zuen.

Behin betiko onartutako ordenantza horren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete joan baino lehen.

Horrela, bada, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 70.2 artikulua agintzen duena bete eta hona hemen, argitaratuta, ordenantza hori, herritar guztiek horren berri izateko eta gainerako ondorioetarako.

Donostia, 2003ko maiatzaren 16a.—Finantza zuzendaria.

(1290) (5642)

ORDENANTZA OROKORRA, DONOSTIAKO UDALAREN HILERRIETAKO ZERBITZUAK EMATEAREN GAINEKOA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. art. Ordenantza honen helburua da Donostiako Udalak arautzea nola eman behar diren udal hilerrietako zerbitzuak, lege oinarritzat hartzen dituela toki araubidearen oinarriak arautzeko Legea, udal korporazioen zerbitzu eta ondasunen araudiak, Sanitate Lege Orokorra eta hileta polizia sanitarioaren Araudia, edo horiek ordezkatzen dituzten arauak.

2. art. Udal hilerrietako zerbitzuak emateari eta horiek jendearengan duten itzalari dagokienez, udalak zuzenean esku hartuko du alorren bat herriaren onurakotzat joz gero.

Alkatea izango da organo eskuduna udal hilerrietako esparruen ordena eta funtzionamendua arautzeko ebazpenak emateko.

Udalari edo hilerrien gestioaz arduratuko den erakundeari jakinarazi beharko diote esparru horietan zer egin nahi duten, beharrezko neurriak garaiz hartu ahal izateko epean.

3. *art.* Donostiako hilerri guztiek hileta polizia sanitarioaren Araudiak eskatzen dituen instalazioak eta zerbitzuak edukiko dituzte.

Instalazioak funtzionamendu eta garbitasun egoera onean egongo dira eta eskaeraren nolakoa den ere, horri erantzuteko moduan egongo da horniturik.

4. *art.* Alkatetzak ebazpen bidez ezarriko du udal hilerrietako ordutegia, zerbitzuen behar eta eskakizun teknikoak kontuan.

5. *art.* Udal hilerrietan onartuko dira zerbitzuak emateko eskabide guztiek baldin eta horiek betetzen badituzte indarreko arauak xedaturiko administrazio eskakizunak eta hileta polizia sanitarioarenak.

6. *art.* Hilerrira doan bisitariak begirunez jokatu beharko dute hildakoak omentzekoekin, eta ez da onartuko esparruaren gizalegea hausten duen ezer egiterik, ezta hilobiak profanatzerik, hondatzerik edo bortxatzerik ere.

Ezin izango da ekintza sozialik egin instalazioetan behar den isiltasuna eta bakea hautsiz gero.

7. *art.* Hilartitz, oroigarri, bereizgarri eta sinboloak, edozein hizkuntzatan idatz daitezke, esparruari dagokion errespetua agerturik beti ere, titularrak izango duelarik hirugarren pertsonen eskubideei kalte egin diezaiekeen inskripzioen erantzukizuna.

Hilerrietan oroitarriak jartzeko alde bat egon daiteke.

8. *art.* Hilerri barnean eta haien inguruetan ez da salmenta ibiltaririk baimenduko, ez da merkataritza edo propagandarako baimenik emango, apaintzeko eta dekoratzeko bada ere.

9. *art.* Udalak ez du erantzukizunik izango hilobietan eta horietan jartzen diren objektuak lapurtuz eta hondatuz gero.

10. *art.* Hilerrien ikuspegi orokor edo zatikakoak eta hilobien marrazkiak, koadroak zein argazkiak lortzeko, baimen berezia beharko da eta, hala erabakiko balitz, eskubideak ordaindu beharko ditu eskatzaileak.

II. KAPITULUA. HILERRIETAKO JARDUERAK

11. *art.* Udal hilerrietan honako zerbitzu hauek emango dira:

a) Igeldo, Altza eta Polloeko hilerrien eta Donostiako Udalak eraiki litzakeenen administrazioa eta kontserbazioa ez ezik, horien ordenuaren eta polizia zaintzea ere.

b) Gorpu eta gorpuzkinak esparrura sartzen direnetik ehortzi edo erraustu arte hartzea eta zaintzea, ehorztea, hilobitik ateratzea, erraustea eta zigor zein hileta osasunen gaineko legediak arauturiko gainerako jarduerak.

c) Edonolako hilobiratze unitateren kontserbazioa, konponketa, gehikuntza eta berreraikuntza.

d) Gorpuak edo gorpuzkinak errausteko instalazioak eraikitzea eta funtzionaraztea.

e) Hilobiratze unitateak hustu eta garbitzerakoan aurkitzen diren arropa eta bestelako objektuak – gorpuzkin ez direnak – suntsitzeko zerbitzua.

f) Hilerrien garbiketa eta mantenurako beharrezko lan, zerbitzu eta obrak egitea eta, bereziki,

horietako lorategiak, hirigintza elementuak, eraikinak eta instalazioak zaintzea.

g)Jendea artatzea, hilerrietako administrazio gestioak osatzeko izapideak egitea eta ehorzketa eskubideak aitortzeko behin-behingo eta behin betiko egiaztagiriak izapidetzea eta ematea.

h)Baimena ematea gorpu eta gorpuzkinak hobiratzeko eta hilobitik ateratzeko, aldatzeko, zaintzeko eta errausteko, beste konpetentziez gain.

i)Ehorzketa eskubideak arautzea, izapidetzea eta ematea, baita ere haien hedakuntza, bizien arteko eskualdaketa edo mortis causa, behin-behineko eskualdaketa edota halakoaren titularraren uztea dela eta, baita ehorzketa eskubideak iraungi direla aitortu ahal izatea ere.

j)Hilobiratze unitateak banatzea, ematea eta berreskuratzea.

k)Hildakoari egur esateko gizarte ekintza antolatzea.

l)Emandako zerbitzu eta emakiden ordainak likidatzea, jakinaraztea eta kobratzea.

m)Emandako zerbitzu eta emakiden zenbatekoak legezko prozedura bidez onartzea.

n)Hilerriak funtzionatzeko eta mantentzeko behar diren obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea, baita kutxetak eta hilerrietan ematen diren zerbitzuekin (hobiratzea, hobitik ateratzea, erraustea, apaintzea) zerikusia duten gauzak saltzea ere.

o)Hileta polizia sanitarioarekin eta hilerrien kontrolarekin zerikusirik izan lezakeen beste ezein funtzio.

III. KAPITULUA.ERROLDA PUBLIKOA

12. art. Errola publikoa eratuko da dagoeneko diren hilobiratze unitateak eta ehorzketa eskubideak zein egiten diren zerbitzuak jasotzeko.

Beharrezko neurriak hartuko dira datuen segurtasuna bermatu ez ezik, horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatzea zein eskuratzea galarazteko ere.

Aldian behin, sanitate eta hileta polizia sanitarioaren alorrean indarrean diren arauekin bat, erroldako datuak aditzera emango dizkiete Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta gai horretan eskudun diren beste erakundeei ere.

Orobat, hilerrietan erreklamazioa liburua egongo da erabiltzaileen esku.

13. art. Hilobiratze unitateei eta ehorzketa eskubideei dagokienez, honako datu hauek jasoko dira:

a)Hilobi, panteoi edo hezurtegi bakoitzaren identifikazioa.

b)Noiz eman zen, baita, halakorik egotekotan, eraikitze lanak noiz baimendu ere.

c)Jabearen edo horren ordezkariaren izen-deiturak eta helbidea.

d)Bizien arteko edo mortis causa ekintza bidezko jarraikako eskualdaketak.

e)Hilobiratzea, hilobitik ateratzea edo lekuz aldatzea, berariaz aipatuko dela gorpua edo gorpuzkinak norenak ziren (izen-deiturak eta sexua) eta ekintzok noiz gauzatu ziren.

- f) Ondorengoaren edo usufruktudunaren izen-deiturak eta helbidea.
- g) Mugakizunak, debekuak eta ixteko erabakia, bidezkoa izanez gero.
- h) Zenbat ordaindu duten edo salbuetsitako ordainak.
- i) Hilobiratze unitateari eragiten dion beste edozer.

14. art. Gorpuzkinak hilobira sartu, erraustu, hilobitik atera eta birrintzeko zerbitzuei dagokienez, honako datu hauek jasoko dira:

- a) Ehortzitako edo erraustutako lagunaren izen-deiturak, errolda datuak eta gorabeherak. Hilobitik ateratako edo erraustutako gorpu edo gorpuzkinaren identifikazioa.
- b) Zein hileta enpresak eman duen zerbitzua, beharrezkoa balitz.
- c) Zein egin gauzatu zen zerbitzua.
- d) Erraustuz gero, errautsok zertan erabili diren:

1.—Donostiako Udalaren hilerrietako hilobi, kolunbario edo errauts gordailuetan utziz gero, zenbakia aipatuko da. Hala izatekotan, non dagoen identifikatuko da.

2.—Senideek edo hurko baimendunek jaso ote dituzten.

3.—Errauskailuan bertan.

e) Hilobitik atera eta gorpuzkinak errausteko zerbitzuaren zergatikoa eta, jakinez gero, hondarren norakoa.

II. TITULUA

ZERBITZUAK

I. KAPITULUA.HOBIRATZEA

1. ATALA.Sanitate eta hileta xedapenak

15. art. Hilerritatik kanpo ehorztea edo lur ematea ez da onartuko agintari eskudunek berariaz baimena eman ezik.

16. art. Ehorzterakoan unean-unean indarrean diren arau tekniko-sanitarioak erabiliko dira.

17. art. Udalak baimenduriko edozein motatako hilobiratze unitaeetan ehortz daitezke hilotzak.

2. ATALA.Zerbitzua nola eman

18. art. Nitxo, hilobi, kripta edo bestelako ehorzketa monumentuetan irekidurak modu hermetikoan itxiko dira likidoak iragaz ez daitezen eta jariorik izan ez dadin.

Nitxo eta kolunbarioetan hobiratzuz gero, ehorzketa eskubidearen jabeek behin betiko idazpena duen hilarria jar dezakete bi hilabeteren buruan.

Barruko materia organikoa desintegratu ondorengo aldaketei bide emateko, halako iragaztezintasuna dakarten materialez egingo dira nitxoak, hilobiak, kriptak eta gainerako hileta monumentuak.

19. art. Beste hilotz edo gorpuzkin batzuk dauzkan hilobi batean ehortzi behar izanez gero, ekitaldi berean gorpuzkinak murrizteko aukera egongo da. Titularrak berariaz eskaturik baino ez da egingo murrizketa hori ehorzketa baino lehenago, eta titularraren edo hura ordezkatzan duen pertsonaren aurrean gauzatuko da, beti ere zerbitzuaren egoerak hartarako bidea emanez gero.

20. art. Hilobi batean hurrenez hurren zenbat gorpu ehortz daitekeen zehazterakoan, hilobiaren edukiera bera izango da mugakizun bakarra, salbu eta ehorzketa eskubidearen titularrak fede emandako moduan mugatzen badu hobian lurpera daitezkeen lagunen kopurua edo horien zerrenda itxia edo mugatzailea adierazita.

Ez da ehorzteko baimenik emango hilobiratze unitateari aitortuko ehorzketa eskubidea amaitzeko sei urte baino gutxiago falta izanez gero.

21. art. Hilobiratze, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabide inprimakia, hori errolda publikoan jasotzeko datuekin batera; gorpua panteoian hilobiratu behar badute, eskabidea bete beharko du ehorzketa eskubide nahikoaaren jabeak; hildakoa jabea bera bada, senideek edo hurkoek beteko dute; beste hilobi motaren batean ehortzi behar izanez gero, ehorzketa eskubidearen emakida eskatu nahi duenak beteko du.

b) Panteoian hilobiratzen bada, ehorzketa eskubidearen titulua. Jabetza egiaztatzerik ez badago edo jabea bera hobiratu behar izanez gero, ehorzteko baimena emango da, baina panteoiaren jabetzaren eskualdatzea izapidetzeko eskatu da.

c) Lurperatzeko lizentzia, salbuespena dela errautsak hobiratu behar izatea.

d) Heriotza berezkoa ez bada, epailearen edo organo eskudunaren baimena.

e) Hilobiratze unitatearen gaineko ordaindu behar guztiak pagatuta izatea.

22. art. Titulua sozietate, elkarte, fundazio zein ospitale edo erlijio komunitateren baten izenean badago, ehorzketak haren zuzendaritzak emandako ziurtagiri bat beharko du, hilotza komunitateko kide batena edo bertan babestu edo hartutako batena dela ziurtatzeko.

23. art. Titularra lur ematearekin ados dagoela adierazteko, hildakoa senitarteko edo arrotza izanik ere, titulu eguneratua aurkeztea nahikoa izango da, agiria lapurtu edo galdu dela idatziz salatu ez bada, behintzat.

24. art. Titulurik gabe ehorztea baimendu daiteke honako hauek gertatuz gero:

a) Titularrak berak eskatzen badu, titulua galdu duela alegatuta.

b) Titularra bera ehortzi behar baldin bada, titulurik aurkeztu gabe ehorzketa baimenduko zaio agertzen den edozein pertsonari, senitartekoa izan ala ez. Jabetza eskualdatzeko prozedura abiarazteko eskatu beharko dute.

c) Erroldan idatziz jasota baldin badago ehorzketa eskubidearen borondatea eta jabetza eguneratzeko eskatuz gero.

II. KAPITULUA. HILOBITIK ATERATZEA

1. ATALA.Sanitate eta hileta xedapenak

25. *art.*Ehorzterakoan unean-unean indarrean diren arau tekniko-sanitarioak erabiliko dira.

2. ATALA.Lekuz aldatzea

26. *art.*Hilotza edo gorpuzkinak hilerri bereko hilobi batetik bestera lekuz aldatzeak bi eskubideen titularren adostasuna beharko du, baita finkaturiko epeak betetzea eta osasun arduradun eskuduna han izatea ere.

27. *art.*Ehorzketa eskubidea hildakoaren izenean dagoenean, hilobiko gorpua edo gorpuzkinak lekualdatzeko baimenik eman ahal izateko, jabetza titular berriari eskualdatzeko eskatu beharko da aurretik.

Orden judizial baten aginduz hilotz bat hilobitik ateratzeko eta epaitegiak prozesu kanoniko batean gorpua aztertzeko, baimena emango da haren manua ikusita.

III. KAPITULUA.ERRAUSTEA

1. ATALA.Zerbitzua nola eman

28. *art.*Gorpua edo gorpuzkinak errausteko, hilerrian honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a)Eskabide inprimakia eskaturiko datuez beterik, errolda publikoan jasotzeko.

b)Hildakoaren, senideen edo hurkoen egiaztatzea, gorpua erraustea nahi dutela adieraztekoa.

c)Hilobiratze lizentzia edo baimena. Epailea tartean den heriotza izanez gero, horren baimena beharko da.

d)Heriotza egiaztatzea, defuntuaren izen-deiturak ez ezik, noiz eta zer dela eta hil zen ere jasota, baita erantzukizunik eskatzeko biderik izango ez delako zantzurik ez dagoela ere.

29. *art.*Zerbitzua ematerakoan honako hastapen hauek errespetatu beharko dituzte:

a)Zerbitzu ematean eta senitarteko eta lagunei emango zaien tratuan, pertsonen intimitatea, dolumina eta duintasuna errespetatuko dira, bai eta haien sinesmen erlijioso, filosofiko eta kulturalak ere.

b)Nahi izanez gero, ekintza sozial akonfesionala egin liteke edo, bestela, edozein erlijiotako ekintza bat, antolatutakoaren iraupen bertsukoa.

c)Ezinbesteko arrazoiren bat dagoenean, instalazioak hondatuta daudenean edo instalazioak artatu zein hobetu beharra dela izan ezik, zerbitzua lanegun guztietan egongo da irekita.

d)Hilkutxa labera sartzen denean, pertsona bat egon daiteke han.

III. TITULUA

EHORZKETA ESKUBIDEAK

I. KAPITULUA.EHORZKETA ESKUBIDEAK EMATEA

1. ATALA.Definizioa eta edukia

*30. art.*Ehorzketa eskubideak jabeari ahalmena ematen dio hilerrian izendaturiko hilobiratze unitatea edukitzeko eta erabiltzeko, tituluari adierazitzako epean. Barne hartzen ditu luraren erabilera eta gorpuak edo giza gorpuzkinak hilobiratzeko, zaintzeko edo gordetzeko jasotako eraikinak berak, lurra beste edozertarako erabiltzerik izango ez dela.

Ehorzketa eskubidea honako hauek direla-eta eratu daiteke:

—Lur sailak, horietan ehorzketa eskubidearen onuradunak panteoiak eraikitze izango duela unean-unean ezartzen diren baldintzak oinarri.

—Dagoeneko eraikitako panteoiak

—Nitxoak

—Hezurtegiak

—Erraustegiak

Ehorzketa eskubidea eman daiteke gorpuak hilobiratzeko zein gorpuzkinak edo errautsak sartzeko.

Nolanahi ere, ehorzketa eskubideak sortu, hedatu, eskualdatu, luzatu eta amaitzearekin zerikusia duten ekintza guztietan kontuan izan beharko da unean-unean indarrean den araubide teknikoa eta sanitarioa.

2. ATALA.Eskubidea

*31. art.*Hilobiratze unitateak (partzelak, panteoiak, nitxoak hezurtegiak eta erraustegiak) edo hilobiak erabiltzeko ehorzketa eskubidea sortzen da hilobiratze unitate bakoitzerako tituluari ematerakoan eta jakinarazpenean hartarako ezarritako epean diru kantitatea ordaintzerakoan.

Alkatea izango da organo eskuduna ehorzketa eskubideetako tituluak eman, eguneratu, aldatu eta indargabetzeko.

*32. art.*Ehorzketa eskubideak emango dira udal jabari publikoaren ondasunak nola erabili arautzeko xedapenez bat. Hilobiratze unitateen kantitatea eskabideena baino handiagoa izanez gero, hileta eskubideak zuzenean izendatuko zaizkie eskatzaileei. Bestela, erabilgarri diren hilobiratze unitateak enkante bidez esleituko dira. Enkantean berdinketarik gertatuz gero, eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoan emango dira.

*33. art.*Hilobiratze unitatea partzela bada, ehorzketa eskubidearen jabeak panteoia edo hileta eraikina jaso beharko du oinarri hartuta honako ordenantza honetan xedaturikoak, tituluari adierazitako baldintzak eta hartarako jartzen den epearen barruan.

*34. art.*Emakidetan eraikitakoak salbuespenik gabe bihurtuko dira Udalaren jabetza.

II. KAPITULUA.EHORZKETA ESKUBIDEEN TITULUAK NOIZ ARTE INDARREAN

*35. art.*Tituluari jasotzen hileta eskubiderako epea ez dute etengo edo aldatuko indarraldian gauzatutako hilobiratzeek ezta titulu eskualdaketek ere.

*36. art.*Gorpuak hilobiratzeko ehorzketa zerbitzua emango da, gutxienez, bost urterako eta, gehienez,

berrogeita hamar urterako. Berrogeita hamar urteko epea amaitu baino urtebete lehenago, titularrak eska dezake ehorzketa eskubidea luzatzeko, gehienez ere laurogeita hemeretzi urteko epean esleipena hasi zen egunetik. Luzapena emateko, kontuan izango da bai ea hilobiratze unitatetik ote dagoen eta hilerri gestioaren aurreikuspenak.

Gorpuzkinak eta errautsak gordetzeko ehorzketa eskubidea urtebete eta berrogeita hamar urte bitarterako eman daiteke, aurreko pasartean xedaturikoaren arabera laurogeita hemeretzi urteko epean.

37. *art.*Ehorzketa zerbitzuaren indarraldia amaitutakoan eta titulu berririk eskatzeko asmorik egon ezean, hilobiratze unitatea hustuta geratu beharko du, eta hartan diren gorpuzkinak titularrak esandako tokira eramango dira, beti ere indarreko xedapen tekniko eta sanitarioen arabera.

III. KAPITULUA.EHORZKETA ESKUBIDEAREN TITULUA

38. *art.*Hona hemen ehorzketa eskubidearen tituluak jaso beharreko datuak:

a)Erregistro zenbakia.

b)Izendatzen den hilobiratze unitatearen identifikazioa: Hilobia, nitxoa, kolunbarioa, erraustegiaren, hezurtegia, partzela edo panteoia.

c)Hilobiratze unitatea erabiltzeko epea, luzagarria den ala ez eta erabilera baldintzak.

d)Jabearen edo, halakorik badago, horren ordezkariaren izen-deiturak eta helbidea.

e)Okupaturiko jabaria eta horretan eraikiko dituenak egoera onean edukitzeko beharra; eskubidea eskualdatzeko baimena eskatzeko beharra; epea amaitutakoan, gorpuzkinak hezurtegi edo kolunbario berezietara eramateko beharra, eta izenda daitezkeen bestelako mugakizun eta debekuak.

f)Partzela edo panteoietarako obra lizentzia eska dezakeen ala ez.

g)Ordaindu eskubideak.

h)Emakida epea amaituta Udalari obrak edo instalazioak itzultzeko beharra.

39. *art.*Ehorzketa eskubidea hilobiratze unitate bakoitzerako emango da:

a)Jabea dela pertsona fisikoa, senar-emazteak edo izatezko bikotea. izateko bikotea izanez gero, bikotekide bat ordezkari moduan agertuko da administrazio ondorioetarako.

Usufruktua eskualdatzen bada behin baino gehiagotan, titulua usufruktuaren jabearen izenean egongo da.

b)Korporazio, fundazio, erakunde, erlijio komunitate, ongintza eta ospitale establezimenduen izenean, euren kide, enplegatu, asilatu eta egoiliarrentzat soilik.

Behin ere ezingo da ehorzketa eskubidea merkataritza entitateen izenean erregistratu; bereziki aseguru, aurreikuspen edo antzerako konpainien izenean baldin eta dagokion jardueraren barruan bezeroei hiltzen direnerako lurperatze eskubidea eskaintzen badie.

Ehorzketa eskubidearen tituluaren jabe den laguna izango da administrazio ondorioetarako erantzule eskubide jabetzari dagozkion obligazioetarako.

*40. art.*Ehorzketa eskubidearen titulua lapurtu, galdu edo behar ez bezala kendu dutelako salaketa bikoiztua eskatu izanaren eskabidearekin batera aurkeztuz gero, hilobian egiten ari direnak bertan behera utziko dituzte eta titulu zaharra indargabekotzat jotzeko eta berria emateko espedienteari ekingo zaio. Bikoiztua ematen denean geratze aldi hori indargabe geratuko da.

*41. art.*Tituluetan akatsik izanez gero izen-deituretan edo bestelako datu muntadunetan, hala dela funtsatu eta egiaztatu ondoren, zuzendu egingo da okerra.

*42. art.*Hilobiaren erabilera mugatzeko klausulak eta horiek aldatzea edo indargabetzea jabeak berak eskatuta gauzatu dira eta hilobien erroldan zein titulu jasoko dira, jabea hildakoan betebeharreko eta behin betiko egiteko.

IV. KAPITULUA.EHORZKETA ESKUBIDEAK ESKUALDATZEA

1. ATALA.Arau orokorrak

*43. art.*Udal hilerrietako hilobiratze unitate guztiak joko dira salerosi ezinezko ondasuntzat. Beraz, ezingo dira inolako salerosketaren gai izan, ordenantza honetan xedaturiko eskualdaketak eta lehenik bereganatutako eskubideak salbuespen direla, nolana ere den, honelakoak arautuko dira tituluetan xedatutakoez eta aplikatu behar zaizkien xedapenez.

*44. art.*Eskualdatze espedientea izapidetu bitartean, Udalak nahierara erabaki dezake hilobian egin beharrekoak geraraztea inguruabarren arabera, geldialdi hori indarrik gabe geratuko dela titulu berria emandakoan. Gerarazteko agindu arren, presazko operazioetarako baimena eman liteke espedientean eta Erroldan horren berri jasota.

*45. art.*Eskualdatzeko espedientea izapidetu eta aldeko ebazpena jasota, ehorzketa eskubidearen titulua emango diote titular berriari, arau honetan xedatutako edukiaz bat.

2. ATALA.Mortis causa eskualdatzea

*46. art.*Ehorzketa eskubidea jabea hildakoan eskualdagarria da hilburukoaren xedapenez bat edo, bestela, hilburukorik gabeko ondorengotzaren arabera, zuzenbide zibilaren arauz bat.

*47. art.*Testamentugileak herentzia ondorengo bati baino gehiagori utziz gero, ehorzketa eskubidea erroldatuko da ondorengoek ordezkari izendatzen duten lagunaren alde.

Ordezkaritza izendatu beharrekoaren izen-deiturarik jakiterik egon ezean, ondorengo adintsuena izango da ordezkaria eta honek onartu ezik, hurrengo adintsuena, eta horrela hurrenez hurren.

*48. art.*Testamentu bidez edozein hilobi motaren usufruktua ondorengoei utzita, hilobi jabetza usufruktu hartzaileari izendatuko zaio. Hura hiltzerakoan jabetza sendotuko da ondorengoaren alde.

*49. art.*Testamentu bidezko ondorengotzarik ezean, hilera eskubidea izapidetuko indarreko arau zibilen bitartez.

Hala izatekotan, usufruktua aitortuko zaio alargunari edo alarguntsari, bizirik eta berrio ezkondu gabe dirauen artean. Aipatu ezkontidea hildakoan eta berriro ezkondu dela egiaztatu ondoren, ehorzketa eskubidearen jabetza aitortuko zaie ondorengoei, 50. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

3. ATALA.Inter vivos eskualdatzea

*50. art.*Ehorzketa eskubidea inter vivos eskualdatzea onartuko da doako lagapena izanda, honako

hauetako bat izanez gero:

a) Titularren senideen alde, laugarren maila arte zuzenekoei eta zeharrekoiei dagokienez, biak ere odolkidetasunez, eta, afinitatez, bigarren maila arte.

b) Ezkontidearen eta eskualdatu aurretik jabearekin gutxienez hamar urtean bizi izan direla egiaztatzen duten lagunen alde.

c) Ospitale eta izate juridikoa duten ongintza edo erlijio erakundeen alde.

Dohainik laga ahal izateko, Udalak baimena eman beharko du eta dokumentuan adieraziko du eskubidearen indarraldia amaitzeko zenbat denbora falta den eta gainerako baldintzak, baita tituluetan jaso beharreko gainerako datuak ere, hori dena ordenantza honetako 42. artikulua araberan.

Banakoek egindako hilobiak banakoen artean eskualdatzeko baimena eman ahal izateko, gutxienez 10 urte egongo dira igarota eraikitzeko alta eman zenetik, hau da, administrazio emakida hasi zenetik.

V: KAPITULUA.BEHIN-BEHINGO TITULUAK

51. art. Behin-behingo tituluak eman litezke honako hauek gertatuz gero:

—Ehorzketa eskubidearen heriotza egiaztatzea ezinezkoa izanik, tituluaren gaineko ondorengotza eskubidea egiaztatuz gero.

—Titularra hil dela eta ondorengotza eskubidea egiaztatuta, jatorrizko titulua erakusterik ez dagoela.

—Titulua erakusterik ez dagoen arren, egiaztatzen badute hilobiratze unitatea aurreko hamar urteotan erabili dela eskualdatze historiaren bitartez.

—Tituluaren gaineko eskubidea duten lagunik izan edo agertu ezean.

Behin-behingo titulu horiek emango ditu Udalak administrazio espedientearen izapidetu ondoren, tarte horretan jende aurrean erakusteko eta interesatuak jakitun jartzeko izapideak gauzatuko direla.

Horretarako luzatzen diren tituluek ez dute galaraziko beste inoren eskubiderik, baina bai hilotzak edo gorpuzkinak ehorztea ez badira ezkontidearenak edo titular berriaren zein lur ematea eskatzen duen pertsonaren laugarren maila arteko aurreko eta ondorengo odolkidetza zein bestelako ahaideak.

52. art. Titularra hil dela egiaztatuz edo susmatuz gero jabetza titulua erakusterik ez dagoela, bestela frogatu ezean, eskatzailea tituluaren eta ehorzketa eskubidearen jabe dela joko da gutxienez hamar urte lehenago emandako dokumentu fede emakidea edukiz gero, handik aurrera bestelako hilobiratzerik egin ez bada, titularrarekiko ahaidetasuna kreditatzen bada odolkidetasun laugarren maila arte.

53. art. Titulua behin behingoz luzatzen denetik hogeit hamar urte igarota behin betiko bihurtuko da eta titularitatearen eska zezaketenen eskubidea galduko.

VI. KAPITULUA.EHORZKETA ESKUBIDEA IRAUNGITZEA

54. art. Ehorzketa eskubidea iraungitza jeta, hilobiratze unitatea eta horren ingurukoak Udalaren jabetza izango dira berriro honako hauetakoren bat jazoz gero:

- a) Jabeak uko egitea.
- b) Eraikin pribatua izanez gero, aurriztat jotzea.
- c) Hilobiratze unitatea bertan behera uztea.
- d) Ehorzketa eskubidearen emakida epea amaituta, hura ez luzatzea.
- e) Ordainketa geroratuaz izendaturiko hilobietan, ezein epe ez ordaintzea epe hura amaitu dela.
- f) 10 urte igaro izana jabea hiltzen denetik, eskubidea haren ondorengoek eskatzen ez dutela.
- g) Legearen arabera ez eskualdatzea edo ordenantza honetan xedatutakoa ez betetzea.
- h) Ordenantza honen arabera xedatzen diren tasak ez ordaintzea.
- i) Hilobiratze unitatearen emakida ondoriorik gabe uzteko ebazpena, herriaren interesak eragindako indargabetze, atzera berreskuratze, desjabetze edo bestelako prozedura dela bitarte. Horrelako baldintzetan, eskubide onuradunari bestearen moduko beste hilobiratze unitate bat emango zaio epe hura amaitu arte falta den aldirako, baldin eta horrelakorik badago hilerriaren batean. Bestela, alde biko espedientea izapidetuko da, kalterik ordaindu behar den ez den argitzeko.

55. *art.* Titularrak uko eginez gero, hileta eskubidearen jabeak Udalari jakinarazi beharko dio ehorzketa eskubideari uko egin nahi diola, baita erakundearen esku jarri ere hilobiratze unitatea.

Ehorzketa eskubideari uko egin ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

— Hilobiratze unitatean inolako gorpuzkinik ez egotea.

— Jabetza gatazkarik ez izatea hilobiratze unitatearen gainean.

Ukoa eskatuta, ehorzketa eskubidearen jabeak bere gain hartu beharko ditu jabetzak sortzen dituen gastuak harik eta udalak ukoa onartzeko ebazpena ematen duen arte.

Eskaturiko ukoaren gainean ebazteko, Udalak kontuan izango ditu udal hilerrien egoera, hilobiratze unitaterik ba ote dagoen eta bestelako baldintza guztiak. Ebazpenak zioduna izan beharko du eta ukoa onartzen ala gaitzesten den erabakiko du. Azkenekoari dagokionez, ebazpenean zehaztu beharko da, beharrezko balitz, interesatuak zenbat diru kobratu behar duen, indarreko zerga ordenantzak xedaturikoaz bat.

Ukoa eskatu eta hiru hilabeteko epean berariaz ebazpenik ematen ez badu Udalak, interesatuak eskabideak gaitzetsizat jo beharko du.

56. *art.* Eskubidea lehenago iraungitzeko administrazio espedientearen jakitun jarriko du Udalak titularra, zuzenbidearen arabera komeni zaiona alegatu ahal izateko.

57. *art.* Ehorzketa eskubidea iraungita, partedunak jakitun jarri ostean, hilobiratze unitatean diren gorpuzkinak hezurtegi orokorrera eramango dira edo, bestela, erraustu egingo, hildakoaren senideek edo baimendun pertsonak beste hilobiren batera eramateko eskatu ezean.

IV. TITULUA

HILOBIAK EGITEA ETA ZAINTZEA

I. KAPITULUA.KONPONTZEKO ETA ZAINTEKO LANAK

58. *art.*Udal hilerrietako esparruetan edozein lan egiteko, obra lizentzia lortu beharko du eskatzaileak, eta kontratista honako arau hauek bete beharrean egongo da:

a)Harri jotzailearen eta marmolariaren prestaketa lanak ezingo dira hilerriaren esparru barnean burutu.

b)Eraikuntzarako materialak hartarako xedatutako tokietan prestatu beharko dira, egokiera bakoitzerako beharrezkotzat jotako babesak jarrita.

c)Eraikuntzako materiala, lanabesak, lurra edo ura bide publikoan jarriz gero, zirkulazioa edo igarotzea ez galarazteko moduan jarriko dira.

d)Eraikitze behar diren aldami, hesi edo beste elementu lagungarriak ondoko hilobi eta landareei kalterik ez egiteko moduan jarriko dira.

e)Eraikuntzako tresna mugikorak egunero estalpean edo gordetegian utzi beharko dira, esparrua ez hondatzeko eta txukun izateko, eta debekaturik egongo da Udalaren ehorzketa tresnak erabiltzea erakunde horren baimenik gabe.

f)Lanak amaituta, kontratistak lantokia garbitu eta hilarri, marko eta bestelako materialen zabor, hondakin eta bestelako soberakinak kendu beharko ditu lanerako ontzat emana eta alta baimena lortzeko.

59. *art.*Hilobiak konpondu eta kontserbatzeko lanak eta apaingarri zein eranskinak ehorzketa eskubidearen jabeek berek ordainduko dituzte.

60. *art.*Lore-landarezko apaindurak eraikinen osagarritzat joko dira eta haiek gobernatzeko arauen menpean izango dira. Jabeek berek zaindu beharrekoak izanik, ez diete inondik inora bideei edo ondoko eraikinei kalterik edo okerrik ekarri behar. Hilobia garbitzen amaitu ondoren, lore hondarrak eta bestelako hondakinak hartarako jarritako tokietara eraman beharko dira.

II. KAPITULUA.HILOBIRATZE UNITATEETAN ERAIKITZEKO LANAK

61. *art.*Hilobiratze unitateetan lanak egin ahal izateko, nahitaez bete beharko dira udal ordenantzak eta eraikinak hilerrietako behar urbanistiko eta funtzionaletara egokitzeko ematen diren baldintza bereziak.

62. *art.*Hilobi batean eraikitze edo berreraikitze eskabidea ehorzketa eskubidea emateko jakinarazpenean xedatzen den epean aurkeztuko da, teknikari adituak izenpeturiko proiektua lagun eta eskudun elkargo profesionalak ikuskatuta.

63. *art.*Ez da egongo hilobi partikularrik eraikitzen hasterik partzelan zuinketa eta mugaketa egin gabe badago, obra lizentzia jaso ez badu eta xedaturiko tasa edo zenbatekoak ordaindu ez baditu. Partzela kokatzeko eta kentzeko gastuak, halakorik egonez gero, jabeak kendu beharko ditu.

64. *art.*Eraikinek ez dute edukiko bidera hamabost zentimetro baino gehiago ateratzen den hegi zein erlaitzik. Arau honetatik kanpo leudeke beren neurriengatik erlaitz irten handiagoak behar dituzten panteoiak, beti ere hiru metro baino altuago egonez gero kokaleku duten lurzoruaen sestra gainetik.

65. *art.*Hilobietako kanpoko paramentuak eta apaingarriak material nobleekin egin behar dira, hilerrien iraupenaren aldetik kontserbazio ona bermatzen ez duten materialak debekaturik egongo direlarik.

66. *art.*Ehorzketa eskubidearen jabeak lanak amaitu dituztela jakinarazi beharko dio udalari, proiektu onartua aldatu den ala ez adierazita. Eskudun zerbitzu teknikoak txostena eman ondoren, hutsak zuzentzeko, zerbait aldatzeko edo obra legezatzeko eskatuko zaio.

67. *art.*Obra bukatuta, hilobiari aitortuko zaio hartan ehorzteko gaitasuna.

68. *art.*Obrak burutzeko epea bete ondoren oraindik bukatu ez badira, zerbitzu tekniko eskudunak bere kabuz aztertu eta egiaztatuko ditu lanak, eta baimena indargabetzea erabaki lezake atzerapena funtsatua ez bada.

69. *art.*Obrak burutzeko epea bete ondoren eraikinak alta jaso ez badu, Udalak bere kabuz eta nahierara utz dezake indarrrik gabe ehorzketa eskubidea, arauzko espedientea abiarazi ondoren.

Jabeek egindako obren trukean Udalak ez du inolako dirurik ordainduko.

70. *art.*Hilobian berreraikitzeke, erreformatzeko, hedatzeko edo apaintzeko egin obrek eraikinaren egituran edo horren departamenduetan eragina badute, sei hilabeteko epea hiru hilabete gehiagoan luza daiteke interesatuak hala eskaturik, aipatu obren garrantziagatik komeni denean, xedaturiko zenbatekoak ordainduta.

V. TITULUA

HILETA ZERBITZUAK EMAN ETA EHORZKETA ESKUBIDEAK ESLEITZEAREN ZENBATEKOAK

71. *art.*Udalbatzak onartuko ditu honako hauek direla eta ordaindu beharreko zenbatekoak: Gorpuzkinak jaso, hilobiratu, hilobitik ater, erraustu, lekualdatu eta txikitzeke zerbitzuak; hildakoak gordetzea; hilerriak zaindu, jagon eta garbitzea; obra lizentzia eta beste ezein zerbitzu; hala nola ehorzketa eskubideen gaineko administrazio baimen eta emakidak eman, eskualdatu eta aldatzea; horiek denak jasoko dituela horien ezaugarrien araberrako dokumentuan edo zerga ordenantzan, gorabehera izanda zerbitzuaren ezaugarriak, aukeratzen den gestio moduaren era juridikoa eta entitate zerbitzu emaila.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik emandako ehorzketa eskubideak arautuko dira jabetza tituluaz eta hura eman zen garaian indarrean zen araudiaz eskubidearen oinarritzko osagaiei dagokienez.

Ordenantza indarrean jartzean ekingo zaio aplikatu beharreko arauetan xedatutako ezein zioengatik iraungita dauden ehorzketa eskubidearen tituluak indargabetzat jotzeari.

XEDAPEN INDARGABETZEKOA

Indargabeturik geratu dira honako ordenantza honetan xedaturikoaren aurkako udal ebazpen guztiak eta, zehazki, 1996.eko apirilaren 25eko hilerri zerbitzuak emateko Ordenantza orokorra eta Polloeko hilerriko errauste zerbitzua arautzeko 2001.eko apirilaren 23ko Ordenantza.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hogeiegunera hartuko du indarra ordenantza honek.